

EL MEJOR DESCANSO

Naiara de Miguel

Mainueta, 17 urte

- ¿Listo? –galdetu zion pianojoleak.
- En clave de Sol porfa. Bat, bi, bat, bi, hiru!
- musika hasi eta sabelidor aurpegia jarriz, oihuka bizian hasi zen:

“Desesperadamente te amo,
quiero ser tu salva-slip,
ohhhhhyea! Desesp...”

Bat-batean musika gelditu egin zen.

- Vale, vale majo. Estoo... ya te llamaremos.
- Adios.

Kaletik entzuten ziren barre algarak. Jada hola-ko porrotetara ohituta zegoen. Bisitatzen zuen hamargarren disketxea zen hura. Baina ezin zuen horrela jarraitu, ez horixe!

Bere etxetik alde egin eta independizatu nahi bazuen, lana aurkitu beharra zuen.

Etxera zihoala, INEM-eko bulegoa ikusi eta zera oihukatu zuen:

- Bihar, nik, Joxean Ibarreta Lopez de Vallejo Aginagak, “residente en Pamplonak”, lana aurkituko dut!!

- Jose Antonio, ¿estás tonto o qué? ¡Algunos intentamos dormir la siesta! –lehen pisuko bizilaguna zen.

Joxean INEM-eko bulegoko edifizio berean bizi

zen. Oraindik gurasoekin zegoen hogeitalau urteko mutil hau. Anai-arrebarik ez zuenez, gurasoen begikoena zen, baina bere kabuz bizitzeko erabakia hartua zuen. Hala ere, dirua irabazteko moduren bat aurkitu behar zuen. Bere zaletasunik handiena musika zen eta abeslari izatea ametsa. Gutxienez planta bazuen, mutil gazte, nahiko eder, altu, ile beltz-laburduna..., baina talentoa... Dutexan ere nahiko traketsa zen. Joxean gaixoak lan bat edukitzea desio zuen. Gau hartan otoitz eta guzti egin zuen.

*Jesusito de mi vida, eres niño como yo,
por eso te quiero tanto y te doy mi corazón,
eta posible baduzu, lantxo bat edo honen
truke? Amen ”*

Hain goiz altxatu zen hurrengo goizean, betileak elkarrekin itsatsita zituela INEM-era sartzeko iladan kokatu zenean. Hala eta guztiz ere, jende pilo bat zegoen bera baino lehen. Zorionez walkman-a zeraman motxilan.

– Aija chu power! Txara-txan-txan, txa-txa-txara-txan-txan, aija chu power! –ingeles “makarronikoa” abesten hasi zen.

Iladako jende guztiak begi txarrez begiratzen zion. Batzuk joan ere egin ziren soinu zatar horiek jasan ezinean. Honela bi burusoil, ijito bat eta hiru neska gazte besterik ez ziren geratu Joxeanen aurrean. Minutu gutxiren buruan nesketako bat Joxeanengana hurbildu eta kaskoak burutik kenduz isiltzeko eskatu zion.

Azkenean ireki zituzten bulegoko ateak. Banan-banan sartu zen jende guztia. Joxean nahiko artega zegoen. Han egoten zen lehen aldia zen eta ez zegoen ohituta.

“INFORMACION” jartzen zuen leihatilarako iladan jarri zen. Ordu erdi barru leihatilan bertan zegoen. Edozein lan egiteko prest zegoela esan zion han zegoen emakume itsusiari. Honek itxaropen aurpegia jarriz “edozein?” arraro bat esan zuen.

– Bai, bai, prest nago edozein gauza egiteko.

Emakumeak “eztakitzer”-eko arduradunaren bulegoraino lagundu zuen Joxean.

– Jauna, gazte hau **edozein** lan egiteko prest dago.

– Bai? Sartu, sartu mutiko! –esan zion ile urdindutako gizon hark. –Ospa hemendik Almudena! Bai... Begira gazte, ez naiz itzulinguruka ibiliko. Badugu nahiko ondo ordaindutako lan bat. Baina badirudi jendeak ez duela gauean lan egin nahi. Ehorztetxe bateko gaujagole lana da hau. Zaindari-ohia hil berria da eta pertsona bat behar dute. Egunero ari dira deika ea norbait daukagun, erotuta naukate. Gaueko bost mila. Asteburuak libre. Zer diozu?

– Baietz!

– Ederki! Astelehenean hasiko zara. Gaueko hamarretan “El mejor descanso” ehorztetxeko atarian. Desamparados kalea, hamahirugarren zenbakia. Zigarrorik nahi?

Astelehena ailegatu zen. Goizean jantzi dotore bat eroatera joan zen, elegant ageri nahi zuen “El

mejor descanso"-ko jabearen aurrean. Berehala otordua etorri zen eta etxetik nahiko urrun zegoez, bere laguna zen Txominen etxera joan zen, handik hurbil zegoen eta. Jateko: "Tortellini a la Txomin" (makarroiak tomatearekin), "delicias de ave" ("Tele Chicken"-i eskatutako oilaskoa), eta amaitzeko, "postres variados" (sagarra edo laranja). Arratsalde osoa taberna batean eman zuten berbetan. Laneko zera hori behin ta berriz kontatzen zion bere lagunari. Zortziak aldera etxeruntz joan zen. Ondo afaldu eta dutxa hartu nahi zuen, gaua luzea izango zen eta.

- Aiii! Ene Joxean! -Lanera alde egin behar zuen unean, amak besotik hartu zuen eta musukatzen hasi zen-. Baina ze dotore jantzi zaren! Euskal Herriko semerik ederrena daukat! Aiiiiii, ene Joxean maitea! Lana aurkitu duzula! Mua, mua, mua.

- Joe ama! Ilea nahastuko didazula! Hau esanez eta ama paretik kenduz lan egitera joan zen.

Hamarrak puntu-puntu zirela ailegatu zen ehortzetxera motxila soinean. Jabea atarian zegoen euli bat harrapatu nahian.

- Gabon gazte! Zu Jose Antonio izango zara ezta?

Aurkezpenak egin ondoren, jabea "El mejor descanso"-ko istorioa kontatzen hasi zen. Noiz sortu zen enpresa-familiar hura, zelako etekinak lortzen zituzten, euren prestigioa (Duquesa de Albarren osaba baten koinata ehortzi omen zuten)... e.a.

Bat-batean, atetik sartu behar zirenean, Joxean burdinazko atearen bestaldean atso zahar bat birakoa zegoela konturatu zen. Ehorztetxeko jabea biraoz josi ezezik, hiltzaile ere deitu zion, eta mendekua zin eginez alde egin zuen. Gazteak ez zekien zer pentsatu. Jabearen haserre bizia nabaritzen zuen.

– Atso madarikatua! Erotuta dago! Bere senarraren heriotza geure errua dela dio!

Gehiegizko lana egiteagatik hil zela!

Ezusteko haren ondoren barrura sartu ziren. Ordu haietan ez zegoen inor bertan.

Joxeanek hotzikara sentitu zuen.

Hall antzeko batean zeuden. Gela zabala zen, paretak koadruz josita zituena. Bizpahiru aulki beltz eta harrera antzeko bat ate aurrean, ordenagailu eta guzti. Honen ondoan kristal opakodun ate bat. Eta atearen ostean korridore luze eta iluna, non bestearen antzeko bost ate, eta, “SALIDA DE EMERGENCIA” eta “ALMACEN” bana zeuden. *Hall*-era bueltatu eta kafe makina non zegoen erakutsi zion Joxeani. Sartzerakoan ez zen konturatu kafe makina zegoenik.

– Beno gazte, ni banoa. Hementxe dituzu sarre-rako giltzak. Lasai hartu, lehenengo eguna gogorrena da beti. Ohituko zara. Gabon!

Jabearen kotxea iluntasunean galtzen ikusi zuen. Giltzez itxi zuen sarrerako ate mardula eta kanpora so egin zuen. Inor ez zegoen kalean; gau hotza zen hura; izugarritzko haizea zegoen, eta zeruan oinaz-targiek itxura bitxiko marrazkiak egiten zituzten.

Aulkietako batean eseri, motxilatik “Mortadelo y Filemón”en bizpahiru komiki atera eta irakurketari eskin zion. Ordu pare bat barru zurrunka zegoen.

Trumoi-hots beldurgarri batek esnarazi zuen juxtu-juxtu Pamela Anderson-ekin larrua jotzera zihoanean.

– Mekaguen pekin!

Bigarren trumoi bat eta argirik gabe geratu zen.

–Kaka!

Komikiak gorde eta motxilatik walkman-a atera zuen itsu-itsuan, baina zintak hartzea ahaztu zitzaion. Orduan ganorazko emisora baten bilaketari ekin zion. Rrrrrffssssrrrrrgabon entzuleok! Gaur gurekin Antoñito el Semental bere esperientziari buruz hitzffffssssrrrrrrrhola, hola, hola, amigos, soy Joaquín Luky y os voy a presentar el nuevo disco de Alejandrrrrssssffffssrrrrrpi-pi-piiii gaueko ordubiak dirarrffssrrrrrrssssffrrrrrquién me va a curar el corazón partíorrfrrrrrffffssssskadi irratian gauero, zure gustuko musika.

– Uf! Azkenean!

Minutuak joan, minutuak etorri, geroz eta asperuago zegoen. Walkman-a itzali eta kafetxo bat hartzera altxatu zen. Txanponak makina barruan geratzeko ahaleginean zegoela, kanpotik zetorren zaratotsa entzun zuen. Atetik begiratu eta ezer ez zuen ikusi. Zertxobait akonaturik zegoen gure Joxean. Zorionez argia itzuli zen. Badaezpada bost minuturo begiratzen zuen kalera, baina han ehortetze aurreko putetze zaharkituaren argi intermitentea besterik ez zen ikusten.

Zer egin ez zekienez, handik paseotxo ematea bururatu zitzaion. Kristal opakodun atetik sartu eta gela horiek inbestigatzera joan zen. Ezkerraldeko lehenengo atean txarteltxo bat zegoen: **ATAUDES PRIMERA CLASE**. Eskubialdean, bigarren atean, beste bat: **SEGUNDA CLASE**. Berriro ere ezkerraldean, hirugarren atean: **TERCERA CLASE**. Eskubialdean laugarren atean: **PRIVADO**, eta ezkerraldean azkenengoko atean (**ALMACEN** eta **SALIDA DE EMERGENCIA** kontuan hartu gabe): **W.C.**

Halera bueltatu zen irratia entzutera.

Halako batean hots zalapartatsu bat entzun zuen kalean. Korrika batean sarrerako atea ireki eta kanpora irten zen. Burdinazko atea ixten zuen giltzarra apurtuta zegoen. Inguruetatik begiratu zuen baina inoren arrastorik ez zen ageri.

– Kaka!

Ehorztetxe barruan zerbait gertatzen ari zela konturatu zen. Ahalik eta azkarren sartu zen berriro sarrerako eskaileretan ostropozo eginez, erraz antzeman zezakeen **PRIMERA CLASE**-tik zetorren zarata.

Arnasarik gabe zegoen gelako atera heldu zenean eta ikusitakoa ezinezkoa iruditzen zitzaion. Hantxe zegoen ordu batzuk lehenago jabea fin jarri zuen atsoa, eskuetan zerramakina bat zuela, katabutak zati-zati egiten.

Joxean aho zabalik geratu zen.

Atsoak bista altxatu, eta mutila ikusi zuen han, kriston lelo aurpegiarekin.

– Zu gaujagole berria izango zara ezta? –galdetu zion zerramakinak eragiten zuen zarata gaindituz.– Gaixoa!

Atsoa zerramakina piztuta hurbiltzen zitzaioala ikusiz, Joxean ziztu bizian atera zen handik.

Korridorea, kristal opakodun atea eta *halla* zeharkatu zituen atsoa atzean zuela. Kalera ailegatu eta bere burua salbu ikusi zuen, baina eskaierak jeisterakoan orkatila bihurritu eta minaren-minez lurrera erori zen. Atsoa geroz eta hurbilago zegoen: bost metro, hiru, bi, bat... Pare-parean zeukan anderea, zerramakinaren hotsak gortzen zuen Joxean.

– Eeez! Gupida zaitez! Oso gaztea naiz hiltzeko! Herio, oh Herio, zergatik ni? Baina gizon bat bezala utziko dut mundu zikin hau!

Bat-batean zerramakinaren zurrumbiloa eten egin zen.

– Barkatu gazte: zerbait esaten ari zinen? Zarata honekin ez dago ezer entzuterik -esan zion andereak goxo-goxo. –Zera... komunak mesedez?

Atsoa komunean zegoela aprobetxatuz Joxean, arrastaka, putetxeraino ailegatu zen. Bertan telefonoz deitu zion Goardia Zibilari hango emakume itsusi eta zaharkituen laztantxo eta piropoen artean. Ordu erdi barru hantxe zeuden bi kotxe.

Ehorztetxera sartu eta hantxe topatu zuten atsoa zerramakina garbitzen Riky Martin-en “un pasito pa'lante María” abesten zuela. Anderea atxilotu, kotxe batera sartu eta komisaldegira eramán zuten. Joxeanek putetxean itxoin zuen astigabe. Etxera joan nahi zuen.

– Disculpen, ¿podrían acercarme a casa? -esan zien bigarren kotxeko Goardia Zibilei.

– Mira majo, si quieres volver en coche, vas a tener que quedarte aquí esta noche, si no, a patita, ¿está claro?

Gela bat utzi zioten Joxeani, baina ezin izan zuen lorik egin, erne egon behar izan zuen hango emakume basatiek bortxa ez zezaten. Goiza heldu zenean zorientasuna piztu zen Joxeanen bihotzean. Azkenean etxera!

Amak susto ederra hartu zuen Goardia Zibilek bere semetxoa ekartzen zutela ikustean, eta atetik sartu bezain laster kristonak eta bi esan zizkien poliziei, geroago barkamena eskatu arren.

Joxean neka-neka eginda zegoen, Nesquick bat hartu eta ohera joan zen goxo-goxo lo egitera. Gau hartan ez zion axola amaren laztanak edo musuak, baina ez zuen oso gau onik igaro. Oina oso haundituta eta morea zeukan, min handia egiten baitzion.

Biharamunean medikuarengana joan zen bere lagun Txominek lagunduta. Gurasoek ezin zuten, eta honek kotxea zuen. Makuluekin atera zen handik.

Gero ehorztetxera hurbildu ziren Joxeanek lana utz zezan. Lanbide hori ez zen berak nahi zuena, arriskutsuegia.

Bi asteren buruan, oina sendatuta zuela, berriro ere INEM-eko bulegora joan zen. Berriro ere ilandan bizpahiru orduz itxaron behar izan zuen, eta berriro ere jendea uxatu zuen bere kantuekin.

Baina ateak ireki zituztenean, INFORMACION jartzen zuen leihatilara hurbildu zenean, zera esan zion Almudena zelakoari:

– Egun on! Joxean Ibarreta naiz, baina oraingotan ez nago prest edozein lani baietz esateko, beraz, emadazu lan dexente bat lortzeko bete beharreko orri horietako bat, mesedez.